

**MUTILOAKO UDALA**

**2018ko UZTAILAK 27ko OHIKO BILKURA**

**LEKUA:** Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

**DATA:** Bi Mila eta hemezortziko uztailak hogeita zazpi.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Iñaki Ugalde Alustiza.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Jule Aranburu Mariezkurrena.  
Asier Aguirre Murguiondo.  
Xabier Aranburu Altuna.  
Erkuden Aguirre Arruabarrena.  
Ion Mujika Perez.

**EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Julen Zabala Garcia.

**IDAZKARIA:**

Iñaki Alonso Antolín.

**BATZARRA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**HASIERA ORDUA:** Eguerdiko ordubiak.

**AMAIERA ORDUA:** Eguerdiko ordubi tèrdiak.


**1.- Aurreko aktaren onespena.**

Lehenik, eta aurreko Bilkurako akta irakurri ondoren, 2018-06-12 aho batez onartzen da.

**2.- Alkatetzaren Ebazpenak.**

Jarraian Idazkariak, aurreko ohiko Bilkuraz geroztik egon diren Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du. Honakoak dira:

- Jon eta Jorge Acosta Morenori Gerriko auzoa 10 eta 11an, bi etheen arteko horma bat eraikitzeko obra baimena emanez.
- Itziar eta Juli Garmendiari Mutiloa bildua 12an (Urbieta etxea) sotoko zolata berdintzeko obra baimena emanez.
- M. Pilar Telleria Murguiondori lur partzela bat segregatzeko baimena emanez.
- Eusebio, Maria Jesus, Francisco, Jose Azurmendi Andueza anaiei lur partzela batzuk segregatzeko baimena emanez.




## MUTILOA UDALA

- Eusebio, Maria Jesus, Francisco, Jose Azurmendi Andueza anaiei beste Izturi izeneko lur partzela segregatzeko baimena emanaz.

### 3.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:

| ZKIA | KONZEPТУ   | ZENBATEKOA |
|------|--|------------|
| 1    | GABIRI: LENKARANGO PISTA                         | 6.554,81   |
| 2    | GABIRI: XEXARRIPAREN PISTA                       | 12.942,16  |
| 3    | ALBOKA: JAIETAKO EMANALDIA XABI SOLANO           | 1.815,00   |
| 4    | GOIERRI GORRI FUTBOL TALDEA: DIRULAGUNTZA        | 128,00     |
| 5    | GURUTZE GORRIA: DIRULAGUNTZA 2017                | 1.225,00   |
| 6    | GURUTZE GORRIA: DIRULAGUNTZA 2018                | 1.238,00   |
| 7    | ONDARRE: JAIETAKO GASTUAK                        | 110,03     |
| 8    | KILOMETROAK: DIRULAGUNTZA                        | 60,00      |
| 9    | IZALGO PILOTA ESKOLA: DIRULAGUNTZA               | 256,42     |
| 10   | USURBE: JAIETAKO KARTELA                         | 284,35     |
| 11   | EUSKAL EDITOREA: BERRIA HARPIDETZA               | 108,25     |
| 12   | GOIERRIKO HEDABIDEAK: JAIETAKO PUBLIZITATEA      | 387,20     |
| 13   | ARANTZAZU LIZARRALDE: ESKULAN irpf 81,97         | 1.020,08   |
| 14   | ILARKI: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA MARTXOA            | 1.444,00   |
| 15   | ILARKI: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA APIRILA            | 1.444,00   |
| 16   | ILARKI: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA MAIATZA            | 1.588,40   |
| 17   | ELURRI: JAIETAKO GASTUAK                         | 734,71     |
| 18   | EGIA TROFEOAK: JAIETAKO GASTUAK                  | 243,21     |
| 19   | GOIERRI KOPIAK: : JAIETAKO GASTUAK               | 14,00      |
| 20   | CORREOS: POSTA KUOTAK                            | 30,15      |
| 21   | URBIL: MATERIALAK                                | 23,23      |
| 22   | URGO: ZABOR POLTSAK                              | 50,82      |
| 23   | EZKETA: BANDERA                                  | 568,70     |
| 24   | ALZURI: BIDEOKAMARA                              | 69,90      |
| 25   | SABICO: SU AURKAKO INSTALIZOA<br>HAURTZAINDEGIAN | 45,38      |
| 26   | IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK                        | 1.497,30   |
| 27   | SEGURA IRRATIA: JAIETAKO GASTUAK                 | 157,30     |
| 28   | GOIERRI TELEBISTA: JAIETAKO GASTUAK              | 769,56     |
| 29   | SAGARDOGILEN ELKARTEA: JAIETAKO GASTUAK          | 720,00     |
| 30   | IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK                        | 36,30      |
| 31   | LUMAGORRIJAIETAKO GASTUAK                        | 1.164,94   |
| 32   | GOIMEN: BIDEN DESBROZAKETA                       | 582,31     |
| 33   | JOSELU ANAIK: JAIETAKO EMANALDIA                 | 2.299,00   |
| 34   | JAUREGI TOLDOAKJAIETAKO GASTUAK                  | 116,16     |
| 35   | ARRATE IRRATIAJAIETAKO GASTUAK                   | 114,95     |
| 36   | BERRI: MATERIALAK                                | 643,22     |
| 37   | ZERKI: JAIETAKO PARKEA                           | 561,00     |
| 38   | GABIRI: JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO              | 5.009,40   |



## MUTILOAko UDALA

|    | INSTALAZIOA                         |          |
|----|-------------------------------------|----------|
| 39 | GABIRI: LIERNIKO PLAZAREN OBRA      | 3.481,17 |
| 40 | CHIP,S: TXARTELAK IRAKURTZEKO       | 19,90    |
| 41 | GABIRI: LIERNIN URAREN KANALIZAZIOA | 2.555,52 |
| 42 | BIOK: MATERIALAK                    | 42,94    |
| 43 | MARGOGAI: MARGOAK                   | 325,27   |
| 44 | BIOK: MATERIALAK                    | 20,57    |
| 45 | OIANGU BERRI: JAIETAKO GASTUAK      | 1.898,00 |
| 46 | ALTZIBAR: LORAK                     | 56,80    |
| 47 | BIOK: MATERIALAK                    | 8,12     |

### 4.- Ondareko ondasuna besterentzeko lizitazioaren onarpena

Jarraian, udalaren jabetzagoak diren etxebizitza eta garajea saltzeko etorritako zinegotzien aldeko 6 bozkarekin (gehiengo osoa) akordio hauek hartzen dira:

**Lehenengoa.-** Lehiaketaren bidez ondasun hauek saltzeko deialdia egitea:


*Urbana: número cinco- Vivienda tipo A, sita en la planta segunda. Dispone de cocina, baño, salón y dos dormitorios, además de un balcón en la fachada principal. Tiene una superficie útil en la vivienda de sesenta metros y sesenta y tres decímetros cuadrados y en el balcón de siete metros y setenta decímetros cuadrados. Linda: Norte, vivienda tipo B; Sur, cierre exterior y caja escalera; Este, fachada principal; Oeste, caja de escalera. Le corresponde una cuota de participación en los elementos comunes del quince enteros y ochenta y siete centésimas por ciento, del edificio sito en Mutiloa bildua 1-B. Referencia catastral n°: 5963065, Finca: 6142190J. Código registral único: 20001001000475. Finca n° 778 de Mutiloa.*

*Urbana: número dos-uno- Garaje numero uno, en construcción, sito en la planta sotano. Tiene una superficie útil de catorce metros y cincuenta y siete decímetros cuadrados. Linda: Norte, con muro de cierre; Sur, garaje numero dos-dos; Este, muro de cierre; Oeste, pasillo de acceso. Le corresponde una cuota de participación en los elementos pertenencias y servicios comunes del inmueble de cero enteros y ochenta y cinco centésimas por ciento, y le corresponde un cuota de participación de cinco enteros y veintiuna centésimas por ciento, en la subcomunidad de planta sotano. Forma parte del edificio en construcción sito en Mutiloa bildua 1-A. Referencia catastral n°: 5963066. Código registral único: 20001001004329. Finca n° 781 de Mutiloa.*

**Bigarrena.-** Salmenta hau egiteko Baldintza Plegua onartzea.

**Hirugarrena.-** Lehiaketa egin aurretik Foru Aldundiari baimena eskatzea.

### 5.- 2017ko kontu orokorraren onarpena. Mutiloa Lantzen S.A.ren 2017ko kontuen onarpena.



## **MUTILOAKO UDALA**

2017rako aurrekontuaren kontu orokorra burutu ondoren eta Jendaurrean 15 egunetako epean jarrita, alegaziorik aurkeztu gabe, Udal Bilkura honek aho batez aipatutako kontu orokorraren onespena ematea erabakitzen du. Aldi berean Mutiloa Lantzen S.A. Udal enpresaren 2017ko kontuak onartzen dira.

### **6.- Mutiloa Bildua 3, 1 eskubian dagoen etxebizita konpontzeko obraren esleipena**

Jarraian eta kontratu txikia izanik aho batez onartzen da Mutiloa Bildua 3, 1 eskubian dagoen etxebizita konpontzeko lanak Grupo Goiuri esleitzea 39.450,93€tan (gehi BEZa) aurkeztutako eskaintzarik onena izateagatik.

### **7.- Troi-Gezurmuño meategiean birsorkuntza ekologikoaren obraren esleipena**

Segidan eta kontratu txikia izanik aho batez onartzen da Troi-Gezurmuño meategiean birsorkuntza ekologikoaren obra "parques y Jardines Abadiano S.A..ri esleitzea 29.157,89€tan (gehi BEZa) aurkeztutako eskaintzarik onena izateagatik.

### **8.- Baserritako bideak konpontzeko obraren esleipena**

Jarraian eta kontratu txikia izanik aho batez onartzen dira baserritako bide hauen konponketa egiteko lanak "Hondalank Artetxe"ri esleitzea:

Urbizuaran baserriko bidea.- 11.653,50€ (gehi B.E.Z.a).

Bide berdean iandako luiziaren konponketa.- 8.950€ (gehi B.E.Z.a).

### **9.- Dirulaguntzak**

Alkateak hitza hartzen du Eusko Jaurlaritzako Osasun sailaren diru laguntzetan Jarduera fisikoa sustatzeko ekintza aurkeztu dela adierazteko. Beste aldetik Gazpe ekipamenduak instalatzeko ekintza Eusko Jaurlaritzako Gazteri Sailaren dirulaguntzan aurkeztu dela adierazteko. Zinegotzi guztiak honekin adostasuna adierazten dute.

### **10.- Etxez etxeko zerbitzua finantzatzeko Foru Aldundiko eta Mutiloako Udalaren arteko hitzarmenaren onarpena.**

Alkateak hitza hatzen du adierazteko Foru Aldundiak bidali duela Etxez etxeko zerbitzua finantzatzeko Foru Aldundiko eta Mutiloako Udalaren arteko hitzarmenaren proposamena. Hau da:

### **ELKARTU DIRA**

*Alde batetik,*



## **MUTILOA UDALA**

*MAITE PEÑA LÓPEZ Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako foru diputatua eta Aldundiaren ordezkaria, Diputatuen Kontseiluak 2018ko martxoaren 25ean egindako bileran hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariaz baimenduta.*

*Eta bestetik,*

*Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako Udaleko Alkate eta ordezkaria, 2018k uztailaren 27ko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariaz baimenduta.*

### **AZALTZEN DUTE**


*I.- Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.*

*II.- Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.*

*III.- Nahiz eta, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera, zerbitzu hori eskaintzea udalen eskumenekoa izan, Gipuzkoako udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adostu dute, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzea 2017-2019 aldian.*

*IV.- Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileentzako arreta hobetzeko, eta eskumen banaketarantz hurbiltzeko xedez, bi administrazioek bidezkoztat jo dute lankidetzaz hitzarmen berri bat sinatzea, zerbitzuaren finantziario sistema arautze aldera.*

*V.- Bi administrazioen helburua da Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzen jarraitzea, baina Foru Aldundiaren parte hartzea zehaztuko da denborari dagokionez, hitzarmen honen III. eranskinean jasotako erabakiak ezarritakoari jarraituz.*



## MUTILOA UDALA

*Hori guztia klausula hauen arabera*

### **KLAUSULAK**

#### **LEHEN. – Helburua.**

*Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Segurako Udalak sinatutako hitzarmen honen xedea da udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea, Erakunde arteko Mahaiak aldeztu aurretik adostuta.*

#### **BIGARREN.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza ekonomikoa zerbitzuaren estalduran.**

*Hitzarmen honen seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, Gipuzkoako udalerrri guztiei zuzendutako Foru Aldundiaren gehieneko ekarpena II. eta III. eranskinetan azaltzen dena izango da.*

*Hiruhileroko ekarpena urtekoaren % 25aren baliokidea izango da.*

*Adierazitako zenbatekoek foru ekarpenaren gehieneko kopurua finkatuko dute eta, beraz, kopuru hori ez da aldatuko, nahiz eta zerbitzuaren jarduerak igogeraren bat izan.*

#### **HIRUGARREN.- Ordu bakoitzeko tarifaren gehieneko kopurua.**

*Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordu bakoitzeko gehieneko tarifaren kopurua oinarritzat hartuko da seigarren klausulan araututako foru finantzaketa zehazteko, zehazki hauek:*

- Ordu bakoitzeko asteguneko tarifa:  
18,87 €
- Ordu bakoitzeko igande eta jaiegunetarako tarifa: 22,66 €

*Udalak emandako zerbitzuaren orduko prezioa gehieneko tarifa baino txikiago balitz, foru ekarpenaren kalkulua egiteko erreferentziatzat hartuko da 2018. urterako udalean 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen orduko prezioaren kopurua eta 2019ko urtarrilaren 1ean dagoena 2019. urterako, eta urtarrilaren 1ean dagokion urterako, hitzarmen honen indarraldia luzatzen bada.*

#### **LAUGARREN.- Zerbitzuaren erregulazioa.**



## **MUTILOA UDALA**

*Udalak Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua egokitu beharko du Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen eskumen banaketara.*

### **BOSGARREN.- Ordaintzeko prozedura.**

*Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du, zortzigarren klausularen c) atalean jasotako hiruhileko naturala dagokion azken egunetik hasi eta hilabeteko epean, zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak, seigarren klausulan ezarritakoak, aplikatetik ateratzen den zenbatekoa.*

### **SEIGARREN.- Foru finantzaketa.**

*Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion zerbitzu finantzaketa zehazteko, kontuan hartuko dira aldagai hauek:*

#### **a) Hiruhileroko fakturazioa:**

*Eskainitako zerbitzuen ordu kopurua hirugarren klausulan adierazitako zerbitzuaren tarifaz biderkatu ondoren ateratzen den emaitza izango da.*

#### **b) Koordainketa:**

*Erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.*

#### **c) Aldundiaren ekarpen teorikoa:**


*Zenbateko hori a) atalean adierazitako hiruhileroko fakturazioaren eta b) atalean adierazitako erabiltzaileen koordainketaren arteko diferentzia da.*

#### **d) Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta:**

*Udalerrri guztiei zuzendutako Aldundiaren ekarpen teorikoei koefiziente murriztaile bera aplikatetik ateratzen den zenbatekoa da, baldin eta ekarpenen baturak gainditzen badu hiruhileroko ekarpen osoa, bigarren klausulan zehaztutakoa.*

*Koefiziente hori zatiketa honen emaitza izango da: Aldundiaren hiruhileroko gehieneko ekarpena, aurreko paragrafoan adierazitakoa, Aldundiaren ekarpen teorikoen gutzizkoaz zatitzea.*

#### **e) Aldundiaren oinarritzko ekarpena:**



## **MUTILOA UDALA**

*Ekarpena izango da d) ataletik ateratzen den emaitza - Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta bider % 75, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.*

### **f) Aldundiaren gehieneko ekarpena hobekuntzengatik:**

*Aldundiaren aurrekontuaren arabera ekarpen teorikoaren eta Aldundiaren oinarritzko ekarpenaren arteko aldea da, eta zerbitzuaren eskaintzan hobekuntzak finantzatzeko erabiliko da.*

*Hobekuntzak direla-eta Aldundiaren gehieneko ekarpena udal mailan nahiz maila globalean egingo da (udalerrri guztien batukaria).*

*Hitzarmen honen I. eranskinean azaltzen dira hobekuntzen tipologia eta tipologia bakoitzari emandako ponderazioa.*

*Honela egiaztatuko dira:*

- *2018. urtea: hobekuntzak udal erregelamenduan edo ordenantza fiskalean jasota edo, bestela, idazkariak egindako ziurtagiriaren bitartez edo Etxeko Laguntza Zerbitzua eskaintzen duten enpresen kontratuetan hobekuntzak jasota.*
- *2019. urtea: hobekuntzaren benetako aplikazioa ebaluatzeko erabili beharreko adierazleen formula kuantitatiboaren bidez; formula hori Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian adostuko da, horretarako eratutako batzorde teknikoak proposatuta.*

### **g) Aldundiaren lehendabiziko ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:**

*Udalerrrian egindako eta egiaztatutako hobekuntza bakoitzerako f) atalean zehaztutako kopurua biderkatuko da hobekuntzari emandako ponderazioarekin.*

*Udalerrri mailan, modu horretan kalkulaturako zenbateko guztien emaitza izango da Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorra lehendabiziko hobekuntzengatik.*


*Udalerrri guztien baturak zenbateko globala emango du.*

*Halaber, aipatutako zenbateko globalaren arabera udalerrri bakoitzari dagokion portzentaje bertikala kalkulaturako da.*

### **h) Hobekuntza Fondoaren soberakina:**

*f) eta g) ataletan kalkulaturako zenbateko globalen arteko diferentzia da. Soberakin osoa birbanaturako da*





## **MUTILOA UDALA**

*udalerrien artean, g) atalean adierazitako portzentaje bertikalaren arabera.*

***i) Aldundiaren bigarren ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:***

*g) eta h) ataletan kalkulaturako zenbatekoen batura da.*

***j) Ateratzen den foru ekarpena:***

*e) eta i) ataletan zehaztutako zenbatekoen batura da.*

### **ZAZPIGARREN.- Abonu sistema.**

***a) Likidazio aldia:***

*Urteko azken hiruhilekoaren likidazioa hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura egiten denez, likidazio aldiak aurreko ekitaldiko azken hiruhileko naturala eta uneko ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoak hartuko ditu.*

***b) Likidazioa:***

*Hiruhileko likidazio prozesua sinplifikatzeko xedez, honela egingo da Aldundiaren oinarrizko ekarpenaren eta bigarren hobekuntzak direla-eta Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorraren konputua:*

*1.- Lehendabiziko hiru likidazioak, oinarrizko ekarpenaren arabera, erabat.*


*2.- Laugarren likidazioa, berriz, hobekuntzei dagokien ekarpenaren arabera, erabat.*

***c) Bidalketa epeak betetzea:***

*Likidazio sistemak udalerrri guztiei dagokien informazioa izatea eskatzen duenez, zortzigarren klausulan aurreikusitako epea amaitu ondoren, informazio hori bidali ez duten udalei posta elektronikoz jakinaraziko zaie astebeteko epe luzaezina dutela eskatutako informazioa aurkezteko. Azken epe hori ez betetzeak hiruhilekoari dagokion likidazioa galtzea ekarriko du, eta udalerrria kanpoan utziko da kalkulu guztiak egiterakoan.*

### **ZORTZIGARREN.- Informazio sistema.**

***a) Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu beharrezkoak diren datu guztiak, gutxienez jarraian aipatzen direnak: zerbitzuaren prezioa eta kostua, pertsona bakoitzeko xehetasuna zerbitzuaren ordu kopuruari dagokionez, erabiltzaileen koordainketa eta, behar bada, aplikagarri zaizkion hobekuntza motak. Hori guztia helburu hauekin:***



## **MUTILOA UDALA**

1.- Zerbitzuari dagokion likidazioa egitea.

2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea gai hauen inguruan: mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta eta, hala dagokionean, beste kolektibo batzuei emandakoa; hobekuntzen ezarpen eraginkorra; eta bete gabe egon daitezkeen beharrak.

3.- Arreta jaso duten mendeko pertsonen buruzko datuak ematea IMSERSOri, kontuan hartuta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak definitutako espezifikazioak, araudiaren aipamen hauen bidez zehaztutakoak:

- SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistema arautzen duena (BOE 302 zk., 2013/12/18, I. atala, 100.833 orrialdea)
- 1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, autonomia pertsonalerako eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzeko sistemaren prestazioak arautzen dituena (alegia, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazioak) (BOE 313 zk., 2013/12/31, I. atala, 107.128 orrialdea)

b) Gipuzkoako Foru Aldundiak tresna informatiko egokia eskainiko du, hau da, Extranet SAD.

Tresna horren erabilera eragotzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalaren eskura bertsio aurreratu bat jartzen duen neurrian, Udalak azken tresna hori erabiliko du.

c) Hauek dira informazioa bidaltzeko gehieneko epeak:

- a) lehen hiru hilabeteak: apirilak 30
- b) bigarren hiru hilabeteak: uztaileak 31
- c) hirugarren hiru hilabeteak: urriak 31
- d) laugarren hiru hilabeteak: urtarrilak 31


### **BEDERATZIGARREN.- Jarraipen batzordea.**

Hitzarmen honen xede diren klausulen jarraipena egiteko, batzorde bat eratu ahal izango dela adostu dute bi alderdiek, non ordezkariak parekidea izango duten.

### **HAMARGARREN.- Hitzarmena amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak.**

Hitzarmena amaitu edo iraungiko da arrazoi hauetakoren bat baldin bada:

- a) Bi aldeen arteko adostasuna.



## MUTILOA UDALA

- b) Aldeetako batek uko egiten badio hitzarmenari, beste aldeari jakinaraziko dio hitzarmena amaitutzat emateko aurreikusi den data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.
- c) Aldeek hitzarmenean aurreikusitako baldintzak eta betekizunak betetzen ez badituzte.

### **HAMAIKAGARREN.- Araubide juridikoa.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bere interpretazio eta garapenerako zuzenbide administrazioko antolamendura joko da, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa espresuki beteta.

### **HAMABIGARREN.- Hitzarmenaren indarraldia.**

Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean, eta 2017ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak, eta 2019ko irailaren 30 bitarteko indarraldia izango du. Hitzarmenaren epea amaitzerakoan besterik gabe luzatu ahal izango da urtez urte, betiere aurrekontu xedapen egokia eta nahikoa baldin badago luzatutako ekitaldirako.

Eta adierazitakoarekin ados daudela frogatzeko, parte hartzaileek agiri honen bi ale sinatzen dituzte, ondorio bakarrarekin, goian aipatutako lekuan eta egunean.

## **I. ERANSKINA**

### **HOBEKUNTZAK ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAN**

- 1.- Zerbitzua ezartzea urteko egun guztietan. Ponderazioa %35
- 2.- Prezio publikoaren gehieneko kopurua 15,00 €tan ezartzea astelehenetik ostiralera. Ponderazioa %25.
- 3.- Zerbitzuaren gehieneko intentsitatea ezartzea: 4 ordu edo gehiago. Ponderazioa %15.
- 4.- Urgentziaz sartzeko modalitatea ezartzea. Ponderazioa %12,5.
- 5.- Beste zerbitzu mota batzuk ezartzea, eta zerbitzua mendekotasunik ez duten pertsonen zabaltea. Ponderazioa %12,5.

## **II. ERANSKINA**

### **Etxeko Laguntza Zerbitzurako foru ekarpenaren zenbatekoak**

- 2018 eta 2019. Urteak:
  - Urtekoa : 2018: 9.620.533,00€  
2019: 8.192.461,00€



## MUTILOAKO UDALA

- *Hiruhilekoa Urteko zenbatekoaren % 25 izango da.*

Mutiloako udalarentzat hitzarmen hau sinatzea interesgarria dela aipatzen du Alkateak, beraz proposatzen du hitzarmenaren onapena. Hau ikusita Osoko Bilkura honek aho batez onatzen du hitzarmena hau eta ahalmena ematen dio Alkateari sinatzeko.

### **11.- Galde-erreguak.**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da eguerdiko ordubi tèrdiak direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.